

## BESTELAKO XEDAPENAK

### HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

#### 4141

*AGINDUA, 2012ko uztailaren 17koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena. Honen bidez, 2012-2013 ikasturtean dirulaguntzak emateko deialdia egiten da eta zero eta hiru urte arteko haureskolen titular diren tokikorporazioei deialdia egiten zaie Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta toki-korporazio horien arteko lankidetzahitzarmenak gauzatzeko.*

2004ko azaroaren 19an argitaratu zen azaroaren 16ko 215/2004 Dekretua, 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezarri, eta abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren artikuluko batzuk indarrean iraunarazten dituen; hain zuzen ere, 2., 3., 4., 5., 6. eta 11.a, eta lehen, bigarren, hirugarren, seigarren eta zazpigarren xedapen gehigarriak. Azken dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolak arautu zituen 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan. Hain zuzen ere, abenduaren 17ko 297/2002 Dekretu horretan finkatzen diren lehentasun-irizpideen artean daude adin-tarte horretako eskaintza estaltzea eta titulartasun publikoko haur-eskolak sustatzea, gaur egungo eskaintza finkatzearen. Irizpide horiei jarraituz, honako hau ematen da aditzera 297/2002 Dekretu horretako bigarren xedapen gehigarrian: «Gaur egungo udaltitulartasuneko hartzaindegien eta haur-eskolen eskaintza sendotu ahal izateko, dekretu hau indarrean sartu baino lehen, hezkuntzako Administrazioak hitzarmenak egingo ditu haureskolen edota hartzaindegiak sortu dituzten toki-korporazioekin».

Bigarren xedapen gehigarriak, era berean, ezartzen duenez, «xede horrekin, ikasturte bakoitzaren hasieran Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak deialdi bat egingo du 0-3 urte arteko haurrei arreta eskaintzen dieten haur-eskolekiko arduradunak diren toki-korporazioekin lankidetzahitzarmenak sinatzeko; bertan zehaztuko dira finantzaketaren kantitateak, horretarako aurreikusitako kontusailaren kontura izango direnak. Hitzarmen horien indarraldia ikasturte osoan luzatuko da, eta urtero berrituko dira. Finantzaketa jasoko duten kantitateak zehazteko, Haur Eskolan betetako plazak hartuko dira kontuan, bai eta ikasturtean izandako plazen bariazioa ere».

Xedapen horiek betetzeko, agindu honen helburua izango da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta hartzaindegien eta/edo haureskolen titular diren Euskal Autonomia Erkidegoko udalen artean lankidetzahitzarmenak garatzea, kostuak murriztu eta, bestalde, zero eta hiru urte arteko haurrentzako udaltitulartasuneko haureskolen gaur egungo eskaintza 2012-2013 ikasturtean sendotzeko.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak hitzarmena sinatzen duen udal bakoitzari egingo dizkion ekarpen ekonomikoak udaltitulartasuneko haureskolan okupatutako postuen arabera finkatuko dira. Okupatutako plaza bakoitzarengatik emango den kantitatea zehaztutako moduluen balioaren % 60 izango da 0-1 eta 1-2 tarteetan kasuan, eta % 100, berriz, 2-3 tartearen kasuan, 2012ko irail-abenduari, biak barne, dagokion ekitaldian eta 2013ko urtarril-uztailari, biak barne, dagokion ekitaldian.

Horrenbestez, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategineko IV. tituluaren xedatutakoaren arabera –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren eremuko dirulaguntzak arautzeari buruzkoa baita–, eta abenduaren 23ko 6/2011 Legean

xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko 2012ko Aurrekontu Orokorrek onetsi baititu, eta Hezkuntzako sailburuordearen proposamenez, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

##### 1. artikulua.– Deialdiaren xedea.

Deialdi honen helburua da 0 eta 3 urte arteko haurrentzako haureskolen titular diren Euskal Autonomia Erkidegoko udalak diruz laguntzea. 5.865.000 euro banatuko dira deialdiaren bitartez.

Aurreko paragrafoan aipatutako aurrekontu-baliabideak agortuz gero, laguntzen onuradunen arteko hainbanaketa egingo da.

##### 2. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Pertsona edo erakunde interesdunek bitarteko elektronikoak erabili ahalko dituzte, prozedura honen izapideak eskatu, kontsultatu eta burutzeko.

2.– Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak eta Platea E-Administrazioko Plataforma Teknologikoa onartzen duen Informatika eta Teknologiako zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenak arautzen dute izapidetze elektronikoa.

3.– Eskaerak eta erantzukizunpeko adierazpenak modu elektronikoan zelan egin jakiteko eta ereduak eskuratzeko, jo helbide elektroniko honetara: <https://www.euskadi.net>.

4.– Herritarrek, eskabidea egiteko eta dokumentuak aurkezteko, bide presentziala edo elektronikoa erabiltzeak ez du esan nahi nahitaez baliabide horiek erabili behar dituztenik prozeduraren ondorengo izapideetan, edozein unetan alda daitezke eta.

Eskaeraren osteko izapideak helbide honetan egingo dira, bide elektronikoz:

<https://www.euskadi.net/misgestiones>

##### 3. artikulua.– Helburua.

Agindu honi dagozkion diru-laguntzak zero eta hiru urte arteko haurrentzako udaltitulartasuneko haureskolen mantentze-kostuak finantzatzeko laguntza gisa emango dira.

##### 4. artikulua.– Onuradunak.

1.– Haurtzaindegi eta/edo haur-eskolen titular diren Euskal Autonomia Erkidegoko udalek hartu ahal izango dute parte deialdi honetan, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen Haur Eskolak arautu dituen abenduaren 17ko 297/2002 Dekretua indarrean jarri aurretik sortutako haurtzaindegiak eta/edo haur-eskolak badira. Bere garaian Gizarte Laguntzako Institutu Nazionalak eskualdatutako haurtzaindegien titular diren udalek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta eskaerak aurkezteko epea hasten denerako Haurreskolak Partzuergora bildu ez badira.

2.– Laguntzarik eman edo ordaintzeko, amaituta egon beharko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiak emandako izaera bereko laguntzak edo diru-laguntzak direla-eta hasi eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren erakunde autonomiadunak oraindik izapidetzen ari diren edozein itzultze- edo zigor-prozedura.

3.– Agindu honen bidez araututako laguntzetan ezingo dute parte hartu zigor-arloko zehapena edo administrazio-zehapena dela-eta diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galdu duten pertsona edo erakundeek, ezta horretarako ezgaitzen duten legezko debekuen eraginpean daudenek ere, sexu-diskriminazioagatik zigortutakoak barne, betiere Emakumeen eta Gizonen berdintasunaren otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.

5. artikulua.– Betebeharrak, baldintzak eta haien akreditazioa.

1.– 2006ko ekainaren 19ko Aginduan ezarritakoaren arabera, EAEko toki-erakundeak salbuetsita daude zerga-betebeharrak beteta dituztela egiaztatetik. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.3 artikulua betez, laguntzak eskatu dituzten erakundeek zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean egon behar dutela dioen baldintza betetzen dutela organo kudeatzaileak egiaztatuko du automatikoki, behar bestetan, eta, horretarako, ez da beharko erakunde eskatzailearen oniritzirik.

2.– Eskabideetan jasota egongo da laguntza eskatzen duen pertsonak edo erakundeak beren beregi onartzen duela organo kudeatzaileak gainerako datu edo dokumentu horiek lortzea edo egiaztatzea, hala bide presentziala nola elektronikoa erabiltzen duenean. Hori gorabehera, Herri Administrazioak egiaztatu, kontrolatu eta ikuskatzeko eskumenak ditu.

3.– Ez da berriro aurkeztu behar lehenagoko deialdietan Administrazioan aurkeztutako dokumentaziorik.

4.– Erantzukizunpeko adierazpen baten bidez (eskabide-orrian bertan azaltzen da), betebeharrak hauek egiaztatuko dira:

– Alta emanda egotea Ekonomia eta Ogasun Sailaren Hirugarrenen Erregistroan. Baldintza hori bete beharra dago, deialdia ebatzi eta ordaintzeko, ebazpena ematekoa bada.

– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

– Helburu bererako diru-laguntzak, laguntzak edo beste baliabide batzuk eskatu, eta, hala badagokio, jaso badira edozein administrazioetatik edo erakunde publiko zein pribatutatik, hala adieraztea.

– Inongo itzulketa- edo zehapen-prozeduretan sartuta ez egotea, edo, sartuta egonez gero, itzulketa- edo zehapen-prozedura horiek bukatuta egotea. Edo, EAEko Administrazio Orokorreko edo beraren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi bada prozedura, oraindik izapidetzan egotea.

– Pertsona edo erakunde eskatzailea ez administratiboki ez penalki zigortuta ez egotea diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko, edo ez egotea laguntzak jasotzea eragozten dien inolako lege-debekuren pean.

– Eskabide-orriko eta berarekin batera doan dokumentazioko datuak egiazkoak direla adieraztea, eta betetzen dituela laguntza horiek jasotzeko indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak.

5.– Ekonomia eta Ogasun Saileko Hirugarrenen Erregistroan erregistratuta egon ezean, edo erregistro horretan dauden banku-datuak aldatu nahi izanez gero:

– Bide presentziala erabilita: [http://www.euskadi.net/r33-2288/es/contenidos/autorizacion/alta\\_terceros7es\\_7999/alta\\_terceros.html](http://www.euskadi.net/r33-2288/es/contenidos/autorizacion/alta_terceros7es_7999/alta_terceros.html)webgunean dagoen ereduari jarraikiz.

– Bide elektronikoa erabilita: URL10

6. artikulua.– Plaza bakoitzari esleituko zaion diru-kopurua.

Okupatuta dagoen postu bakoitzeko zenbatekoa agindu honetako 6. artikuluan ezarritako moduluaren % 60 izango da 0-1 eta 1-2 tarteen kasuan, eta % 100, berriz, 2-3 tarteen kasuan, 2012ko irail-abenduari, biak barne, dagokion ekitaldian eta 2013ko urtarril-uztailari, biak barne, dagokion ekitaldian; betiere, deialdi honetan ezarritako salbuespen eta baldintzen arabera.

7. artikulua.– Plaza-kopurua.

1.– Haur-eskolan okupatutako postuen kopurua zehazteko, 2012ko irailetik abendura bitarteko aldirako, biak barne, 2012ko irailaren 15ean inskribatuta dauden haurren kopurua hartuko da aintzat. 2013ko urtarriletik uztaile bitarteko aldirako (biak barne), berriz, 2013ko urtarrilaren 8an aurreinskribatuta dauden haurren kopurua hartuko da aintzat. Hori dela-eta, udalak data horietan inskribatuta dauden haurren zerrenda zehatza igorriko du, jaiotza-urtea adieraziz, eta horretarako udalaren edo organo eskumendunaren idazkariak ziurtagiria igorriko du. Dena den, Hezkuntza Ikuskapenak bidezko egiaztapenak egin ahal izango ditu.

Irailaren 15ean lau hilabete edo gehiago dituztela matrikulatutako haurrek ikasturte osoko diru-laguntza jasotzeko eskubide izango dute.

2012ko irailaren 15ean matrikulatutako gainerako haurrek diru-laguntza jasotzeko eskubidea emango dute, lau urte baino gutxiago badituzte. Eskala honen arabera emango dira laguntzak:

Maiatzaren 16tik ekainaren 15era bitartean jaiotakoek, 2012ko urritik 2013ko uztaile bitartean.

Ekainaren 16tik uztailearen 15era bitartean jaiotakoek, 2012 azarotik 2013ko uztaile bitartean.

Uztailearen 16tik abuztuaren 15era bitartean jaiotakoek, 2012ko abendutik 2013ko uztaile bitartean.

Abuztuaren 16tik irailaren 15era bitartean jaiotakoek, 2013ko urtarriletik uztaile bitartean.

8. artikulua.– Moduluak haur bakoitzeko.

Honako hauek dira 2012 eta 2013 urteetarako moduluak haur bakoitzeko eta adin-tarte bakoitzeko:

Adin-tartea	2012	2013
0 urte	7.163,65 euro	7.163,65 euro
Urte 1	4.408,41 euro	4.408,41 euro
2 urte	3.183,84 euro	3.183,84 euro

9. artikulua.– Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Deialdi honetan parte hartzeko eskabide-orriak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Ikastetxeen Zuzendaritzara bidali beharko dira. Hain zuzen ere, horretarako ezarritako eskabide-eredu bat igorri beharko da Hezkuntza Sailburuordetzara, behar bezala beteta. Eskabide-eredua <https://www.euskadi.net> egoitza elektronikoan egongo da eskuragarri, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta ikerketa Saileko Erregistro Nagusian aurkeztu ahal izango da (Donostia kalea 1, 01010, Vitoria-Gasteiz), edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura

Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako edozein organotan. Posta-bulegoetan aurkeztuz gero, gutun-azai irekian eraman beharko dira, dokumentuko lehen orriko goiburuan azal dadin zein egunetan eta zein ordutan onartu diren bulego horietan.

Era berean, bide elektronikoa erabiliz ere aurkeztu ahalko dira eskabideak, euskadi.net egoitza elektronikoa sartuta (<https://www.euskadi.net>).

2.– Pertsona edo erakunde eskatzaileek eskabidea eta horri erantsitako dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dute, eurek aukeratzen duten hizkuntzan. Era berean, pertsona edo erakunde eskatzaileak aukeratutako hizkuntza erabiliko da prozeduran, hala ezarrita baitago azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan (10/1982 Legea, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legea).

3.– Deialdi honetako eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

4.– Eskaerarekin batera, honako agiriak ere aurkeztu behar dira:

a) Haur-kopuruaren laburpena, adinaren arabera: 0-urtebete artekoak; 1-2 urte artekoak eta 2-3 urte artekoak zenbat diren 2012ko irailaren 15ean, eta 2013ko urtarrilaren 8rako aurreikuspenak (I. eranskina).

b) Agindu honetako 7. artikuluan ezartzen diren datetan eta baldintzetan matrikulatuta dauden 2012. urtean jaiotako haurren zerrenda zehatza (II. eranskina).

c) Agindu honetako 7. artikuluan ezartzen diren datetan eta baldintzetan eskolatuta dauden 2011. urtean jaiotako haurren zerrenda zehatza (III. eranskina).

d) Agindu honetako 7. artikuluan ezartzen diren datetan eta baldintzetan eskolatuta dauden 2010. urtean jaiotako haurren zerrenda zehatza (IV. eranskina).

e) 2012-2013 ikasturtean eskatutako eta/edo jasotako laguntzen zerrenda (V. eranskina).

f) 2012-2013 ikasturtean zerbitzua garatu ahal izateko, udalak haur-hezkuntzako eskolari esleitu dion aurrekontu-esleipena. Bereizi egin behar dira sarrerak (familiek jartzen dituzten kuotak barne) eta gastuak, eta adierazi egin beharko da jardueraren ondorioz sortzen den defizita (VI. eranskina).

g) Haur-eskolako hezkuntza-langileen zerrenda (VII. eranskina).

5.– Hezkuntza-proiektua haur-escolan gordeko da, eta agindu honen 18. eta 19. artikuluetan ezarritako jarraipen-batzordearen esku geratuko da. Hezkuntza-proiektu horrek honako hauek hartuko ditu bere baitan, besteak beste:

a) Haur-kopurua, adinaren arabera, taldekatzeko irizpideak, unitate-kopurua, adinaren eta hizkuntza-ereduaren arabera.

b) Unitate bakoitzeko haur-hezitzaileen zerrenda, ondokoak jasoz: lan-egoera, titulazioa eta hizkuntza-gaitasuna. Laguntza-langileen zerrenda ere jasoko da.

c) 0-3 urterako haur-escolaren egutegi-ordutegiak eta eskainitako zerbitzuak: jantokia, mediku-eta osasun-laguntza, laguntza psikologikoa, gurasoen eskola...

d) Jarduketak hezkuntza-eremuan dituen balio, helburu eta lehentasunen definizioa.

6.– Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonalen Fitxategi Publikoei eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin bat etorrituz, deialdiko parte-hartzaileek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko. Datuok, bestalde, «Haur hezkuntzako diru-laguntzak» izena duen fitxategi batean sartuko dira, diru-laguntzen deialdi hau, bai eta deialdira biltzen diren udalei deialdiaren garapenaren berri emateko ere. Ikastetxeen Zuzendaritza da fitxategiaren arduraduna. Datuak aurkatu, kontsultatu, zuzendu eta ezabatzeko eskubideak Ikastetxeen Zuzendaritza erabili ahal izango dira. Horretarako, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera jo beharko da (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Halaber, deialdi honetan parte hartu duten pertsonak Ikastetxeen Zuzendaritzari baimena ematen diote, aurkeztutako dokumentuen benetakotasuna beste erakunde publiko batzuetan egiaztatzeko.

10. artikulua.– Prozedura aurrera ateratzea eta eskaeren zuzenketa.

1.– Ikastetxeen Zuzendaritzak eramango du aurrera prozedura.

2.– Ikastetxeen Zuzendaritzak eskabidean hutsik edo akatsik antzematen badu, eskatzaileari jakinaraziko dio, eta 10 eguneko epea emango, huts edo akats horiek zuzentzeko. Hamar egunak igarota zuzentzen ez baditu, eskatzaileak eskaerari uko egin diola ulertuko da, 4/1999 Legearen 42. artikulua aurreikusitako moduan idatzi beharreko ebazpena eman ondoren.

11. artikulua.– Balorazio-batzordea.

Hauek izango dira balorazio-batzordeko kideak:

– Ikastetxeen zuzendaria, presidentea izango dena, eta beharrezkoa izango balitz, presidenteordeak ordezkatuko du.

– Hezkuntza Berriztatze zuzendaria, presidenteordea izango dena.

– Hezkuntzako ikuskatzaile nagusia.

– Ikastetxeen Zuzendaritzako bi teknikari, horietako bat idazkaria izango delarik.

12. artikulua.– Balorazio-batzordearen funtzioak.

Balorazio-batzordeak aurkeztutako dokumentazioa aztertuko du, eta haureskola bakoitzari laguntza emateko proposamena aurkeztuko dio Hezkuntzako sailburuordeari, betiere agindu honetako 6., 7. eta 8. artikuluetan ezarritako irizpideen arabera.

13. artikulua.– Deialdiaren ebazpena.

1.– Hezkuntzako sailburuordeak emango du deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak emateko ebazpena, balorazio-batzordeak egindako proposamena aztertu eta gero. Ebazpen hori udal eskatzaileei jakinaraziko zaie, eta, denek jakiteko, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Epea amaitu eta interesdunei ebazpenik jakinarazi ezean, eskabidea ezetsi egin dela ulertu ahal izango da.

3.– Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

#### 14. artikulua.– Hitzarmenak.

Onartutako eskabideak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta laguntza jaso duten udalen arteko hitzarmenaren bidez gauzatuko dira, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik hilabeteko epean. Hitzarmen hori agindu honetako VIII. eranskinean jasota dago.

#### 15. artikulua.– Laguntzak jaso eta dagozkion frogagiriak aurkeztea.

1.– Diru-laguntza hiru epetan ordainduko da. Lehenengo ordainketa –lehendabiziko urtealdiari dagokiona (2012ko irailetik abendura)– 14. artikuluan aipatzen den hitzarmena sinatu ondoren gauzatuko da. Bigarren ordainketa –bigarren urtealdiko % 50ekoa– apirilean egingo da. Hirugarren ordainketa –bigarren urtealdiko gainerako % 50ari dagokiona– diru-laguntzaren onuradunak 2012-2013 ikasturtean izandako gastu eta diru-sarreraren agiri bidezko justifikazioa aurkeztu ondoren egingo da; justifikazio hori udal-idazkariaren edo kontu-hartzailearen ziurtagiri bidez egingo da. Inprimaki-eredua <https://www.euskadi.net> egoitza elektronikoa egongo da eskuragarri, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Erregistro Nagusian aurkeztu ahal izango da, bide presentziala erabilita (Donostia kalea 1, 01010, Vitoria-Gasteiz), edo Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako edozein organotan. Posta-bulegoetan aurkeztuz gero, gutun-azal irekian eraman beharko dira, dokumentuko lehen orriko goiburuan azal dadin zein egunetan eta zein ordutan onartu diren bulego horietan.

Frogagiri horiek baliabide elektronikoz ere aurkeztu ahal izango dira, web gune honetan: <https://www.euskadi.net/misgestiones>.

2.– Frogagiriak aurkezteko epea 2013ko uztailaren 30ean amaituko da, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Ikastetxeen Zuzendaritzan aurkeztuko dira.

3.– Ikasleen datuak aztertu eta gero, Administrazioak eskubidea izango du Hezkuntzako sailburuordeak emandako kitapen-ebazpenean onuradunei emandako diru-kopuruak doitzeko, beti ere onuradunari entzun eta gero.

4.– Ikastetxeek 2012-2013 ikasturtean egindako ekintzei buruzko txostena Jarraipena Batzordearen eskura izango dute. Txosten horrek atala hauek izango ditu gutxienez.

a) 2012-2013 ikasturtean egindako ekintzen garapena.

b) Hezkuntza Proiektuan adierazitako helburuak zein neurritan lortu diren.

c) Eraitzen azterketak, programak nola egokitu edo aldatu behar diren proposatuz.

#### 16. artikulua.– Bateragarritasunen araubidea.

1.– Deialdi honen bidez lortutako diru-laguntza bateragarria izango da hezkuntzaarloan eskumenik ez duten herri-administrazioen menpe dauden organoen edo entitate pribatuen bidez lortutako beste edozeinekin. Alabaina, diru-laguntza guztien batura ezin izango da gastuaren % 100 baino gehiagokoa izan. Halakorik gertatzen bada, egindako gastutik gora jasotzen den kopurua kenduko zaio deialdi honen arabera dagokion diru-laguntzari.

2.– Dena dela, diru-laguntza hartzen duen udalak nahitaez eman beharko dio xede bererako lortu duen beste edozein laguntzaren berri diru-laguntza eman dion administrazioari, horrela xedatzen baita Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikuluan (1998ko urtarrilaren 19ko EHAA).

17. artikulua.– Onuradunaren betebeharrak.

1.– Eska daitekeen beste edozer, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.2 paragrafoan aurreikusitakoarekin bat etorritz.

2.– Era berean, diru-laguntzaren onuradunak nahitaez lagundu beharko du administrazio emaileak egiten dituen egiaztapen-ekintzetan eta Administrazioaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egindako kontrol-ekintzetan, hala agintzen baitu Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretu horretako 50.2. artikulua.

3.– Udal onuradunak emandako diru-laguntza onartu beharko du, diru-laguntza ematen zaion jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epearen barnean, diru-laguntzari espresuki eta idatziz uko egiten zaionean izan ezik. Halakorik gertatzen ez bada, beraz, onartu egiten dela ulertuko da.

18. artikulua.– Jarraipen-batzordea.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta kasuan kasuko udalak izenpetu behar duten eta 14. artikuluan aipatzen den hitzarmena behar bezala gauzatzen dela bermatzeko, jarraipen-batzorde bat eratuko da. Honako kide hauek izango ditu batzordeak:

- Ikastetxeen zuzendaria edo haren ordezkoa, presidentea izango dena.
- Hezkuntzako ikuskatzaile bat, ikuskatzaile nagusiak izendatua.
- Ikastetxeen Zuzendaritzako teknikari bat, Idazkari jardungo duena.

19. artikulua.– Jarraipen-batzordearen funtzioak.

1.– Jarraipen-batzordeak, berak finkatutako prozeduraren arabera, hitzarmena eta hezkuntza-proiektua (haur-eskolak gordeko duena) noraino betetzen diren ikuskatu ahal izango du.

2.– Horretarako, jarraipen-batzordeak, 15.1 artikuluan aurreikusitako bigarren ordainketa egin baino lehen, udalek aurkeztutako datuak aztertu ahal izango ditu. Batzordeak, hala behar izanez gero, bere egitekoak betetzeko beharrezko deritzen dokumentuak eskatu ahal izango dizkie udalei. Dokumentu horien arabera egin ahal izango du bidezko txostena. Txosten hori Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzara bidaliko da, eta aldekoa izanez gero, azken ordainketa egingo da. Nolanahi ere, txosten hori udal bakoitzaren eskura egongo da.

20. artikulua.– Ez betetzea eta itzultzeko prozedura.

Diru-laguntza emateko bide eman zuten baldintzetako bat ez dela betetzen egiaztatuz gero, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli behar zaizkio jasotako diru-zenbatekoa eta horren legezko interesak, betiere azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoarekin bat. Eta, batez ere, honako kasu hauetan:

- a) Justifikatzeko obligazioa ez betetzea.
- b) Laguntza zertarako eman, horretarako ez erabiltzea.
- c) Behar diren baldintzak bete gabe lortzea laguntza.
- d) Agindu honen 17. artikuluan ezarritako obligazioetarikoren bat ez betetzea.
- e) Jardueraren kostua behar baino gehiago finantzatzea.



## AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honek arautzen ez dituen prozedura-gaietarako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoa aplikatuko da, 4/1999 Legeak (urtarrilaren 14ko BOE) aurreikusitako aldaketak kontuan hartuz.

Bigarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administraziobideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari; horretarako, hilabeteko epea izango da, agindu hau EHAAn argitaratu eta biharamunetik hasita. Bestela, administrazioarekiko auzierrekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindu hau EHAAn argitaratu eta biharamunetik hasita.

Hirugarrena.– Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariari baimena ematen zaio agindu hau betetzeko beharrezko diren jarraibide guztiak eman ditzan.

Laugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamuneari sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko uztailaren 17a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,  
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

2012ko irailaren 14a, ostirala

## ESKABIDE-ERANSKINA

UDAL TITULARTASUNA DAUKATEN 0 ETA 3 URTE ARTEKO HAUR-  
ESKOLENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK

Izartxo (\*) duten datu guztiak nahitaez bete behar dira

## ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA\*

<input type="checkbox"/>	Titularra	<input type="checkbox"/>	Ordezkarria
--------------------------	-----------	--------------------------	-------------

## DATU PERTSONALAK

TITULARRA		
Erakundearen izendapena*	Dokumentu-mota*	Zenbakia
Tel. finkoa	Tel. mugikorra	

ORDEZKARIA		
Izena / Erakundearen izendapena*	Dokumentu-mota*	Zenbakia
Lehen abizena	Bigarren abizena	
Tel. finkoa	Tel. mugikorra	Sexua
		<input type="checkbox"/> Gizona <input type="checkbox"/> Emakumea

## JAKINARAZPENA\*

<input type="checkbox"/>	Elektronikoa	<input type="checkbox"/>	Posta bidez
--------------------------	--------------	--------------------------	-------------

## HELBURU POSTALETARAKO (Posta bidezko jakinarazpenetarako soilik)

Herrialdea*	ESPAINIA		
Helbidea*	Zk	Pisua	Letra
PK*	Udalerrria*	Lurraldea*	

## JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOETARAKO

Posta elektronikoa (puntu eta koma [;] bitartez bereziak)

Mugikorraren telefono zenbakia (puntu eta koma [;] bitartez bereziak)

**JAKINARAZPENAK ETA OHARRAK JASOTZEKO HEZKUNTZA\***

Euskara

Gaztelania

**BESTELAKO DATU INTERESGARRIAK**

Titularraren betebeharraren fiskalen informazioa duen Zerga Administrazioaren Lurraldea/Probintzia\* \_\_\_\_\_

**ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK****BATERAGARRITASUN-ADIERAZPENAK**

Erakunde eskatzailea ez dago laguntzarik jasotzen ari xede eta helburu berarekin Administrazio Publikoen edo erakunde pribatuen eskutik.

Erakunde eskatzaileak Administrazio Publiko edo erakunde pribaturen bati laguntza bat eskatu dio eta eman diote (atal honen datuak Eranskinean zehaztu beharko dira)

Erakunde eskatzaileak Administrazio Publiko edo erakunde pribaturen bati laguntza bat eskatu dio eta oraindik erantzunaren zain dago (atal honen datuak Eranskinean zehaztu beharko dira)

**BESTELAKO ADIERAZPENAK**

Erakunde eskatzailea diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor edo administrazio-erlako zigorrik ez dauka, eta ez dago laguntza horiek jasotzeko ezgaitzen duen lege-debekuen eraginpean, beren beregi Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko azken xedapenetako seigarrenaren arabera sexu-diskriminazioa egin izanagatik lege-debekuen eraginpean.

Erakunde eskatzaileak egunean ditu indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, araz zehaztu den bezala.

Eskabide honetan bildutako eta eskabideari erantsitako dokumentazioan bildutako datuak egiazkoak dira.

Erakunde eskatzaileak laguntza hauen onuradun izateko indarrean dagoen legediak ezarritako baldintzak betetzen ditu.

**ADOSTASUNAK****Ordez kariaren nortasun-datuak**

Baimena ematen diot deialdi hau kudeatzen duen atalari, dagokion administrazioan baliabide elektronikoen bidez edo aukeran dauden baliabideen bidez datuok, egiaztatzeko, baieztatzeko edo ziurtatzeko.

**Hirugarrenen alta**

Baimena ematen diot deialdi hau kudeatzen duen atalari, dagokion administrazioan baliabide elektronikoen bidez edo aukeran dauden baliabideen bidez datuok egiaztatzeko, baieztatzeko edo ziurtatzeko.

**DATU PERTSONALAK BABESTEKO LEGEA**

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, Eusko Jaurlaritzaren **Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Ikastetxeen Zuzendaritzak** jakinarazten dizu eman dituzun eta zure eskabidean agertzen diren datuak Eusko Jaurlaritzaren "SUBVENCIONES A CENTROS DE ENSEÑANZA" fitxategian sartu direla. Eusko Jaurlaritzaren **Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Ikastetxeen Zuzendaritza** da fitxategi horren titularra eta 2010eko urriaren 4ko Araudian araututa dago. Fitxategiak laguntza emateko espedienteak kudeatzea da helburu. Aldez aurretik, Datuak Babesteko Agentziari eman zaio horren berri, eta datuen segurtasun osoa bermatzeko behar diren segurtasun-neurriak ezarrita ditu. Fitxategiaren datuak, bestalde, ez zaizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, legeak bideratutako kasuetan izan ezik.

Datu pertsonalen babesari buruz indarrean dauden araei jarraiki, eskatzaileak badu sartzeko, zezentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliatzea. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoak berariaz aitortzen duen bezala. Horretarako, baduzu Eusko Jaurlaritzaren **Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Ikastetxeen Zuzendaritzara** jotzea (Donostia kalea 1, 01010, Gasteiz).

Administrazio Publikoak erkatu ahal izango ditu adierazitako datuak eta berariazko egiaztapenak egin ahal izango ditu laguntzak behar bezala esleitzeko.

\_\_\_\_\_ (e)n , \_\_\_\_\_ (e)an

(Ordez kariaren sinadura)

## ESKABIDEAREN ARGIBIDEAK

### 1 ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA

**Pertsona juridikoek, beti jokatzeko dute ordezkari baten bitartez.** Beraz, "ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA" atalean "Ordezkaria" aukeratu behar du, eta "DATU PERTSONALAK" atalean, erakundearen datuak idatzi "Titularra" idazpuruan, eta erakundearen ordezkariaren datuak "Ordezkaria" idazpuruan. Eskabidea ordezkariak sinatuko du.

### 2 JAKINARAZPENA

Eskatzaileak jakinarazpenak zein kanaletik jaso nahi dituen aukera dezake: posta bidez edo elektronikoa.

**POSTA BIDEZ:** "HELBURU POSTALETARAKO" atalean adierazitako helbidera igorriko zaizkio jakinarazpenak

**ELEKTRONIKOA:** eskatzaileak jakinarazpenak [www.euskadi.net/nirekudeaketak](http://www.euskadi.net/nirekudeaketak) -eko "Nire gestioak" ataleko sarrera ontzian jasotzen ditu. "Nire gestioak" atalean sartzeko beharrezkoa izango da eskatzaileak indarrean dagoen ziurtagiri elektronikoa bat izatea (ONA, NANA, Herritar Ziurtagiria, Erakunde Ziurtagiria, FNMT...)

### 3 JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOETARAKO

Eskatzaileak jakinarazpen elektronikoa jasotzea erabaki badu, administrazioak posta elektronikoa edo mugikor bidezko zerbitzu bat jartzen du zure eskura, jakinarazpen bat bidaltzen dizun bakoitzean zu ohartarazteko.

Nahi dituzun posta elektronikoa edota mugikor zenbaki idatz ditzakezu, kasu bietan datu bakoitza puntu eta koma (;) bitartez bereiziz.

## I. ERANSKINA

**UMEEN KOPURUA**

A) 2012ko irailaren 15ean izango den 0-1, 1-2 eta 2-3 urteko haur kopuruaren laburpena, udaleko idazkariak edo organo eskudunak ziurtatua.

<b>Adinak</b>	<b>Kopurua</b>
0-1 urtekoak	
1-2 urtekoak	
2-3 urtekoak	

B) Aurreikuspenen arabera, 2013ko urtarrilaren 8an izango den 0-1, 1-2 eta 2-3 urteko haur-kopuruaren laburpena, udaleko idazkariak edo organo eskudunak ziurtatua.

<b>Adinak</b>	<b>Kopurua</b>
0-2 urtekoak	
1-2 urtekoak	
2-3 urtekoak	

\_\_\_\_\_ (e)n \_\_\_\_\_ (e)an

(Ordez kariaren sinadura)

2012ko irailaren 14a, ostirala

## II. ERANSKINA

## 2012AN JAIQAK

A) 2012ko urtean utarrilaren 1a eta maiatzaren 15 bitartean jaiotako eta ikastetxean 2012ko irailaren 15erako matrikulatu diren haurren zerrenda alfabetikoa

Zenbakia	Izen-deiturak	Jaiotza-data
1		

B) 2012ko urtean maiatzaren 16tik aurrera jaiotako eta ikastetxean 2012 irailaren 15erako matrikulatu diren haurren zerrenda alfabetikoa.

Zenbakia	Izen-deiturak	Jaiotza-data
1		

C) Ikastetxean aurrematrikulatuta dauden eta 2013ko utarrilaren 8an eskolatu egongo diren 0-1 urteko haurren alfabeto-zerrenda, udaleko idazkariak edo organo eskudunak ziurtatua.

Zenbakia	Izen-deiturak	Jaiotza-data
1		

**Zerrenda horiei haur guztien familia-liburuaren fotokopiak erantsiko zaizkie**

\_\_\_\_\_ (e)n \_\_\_\_\_ (e)an

(Ordezkiaren sinadura)

2012ko irailaren 14a, ostirala

## III. ERANSKINA

## 2011N JAIOK

A) 2012ko irailaren 15ean ikastetxean eskolatu 1-2 urteko haurren alfabeto-zerrenda, udaleko idazkariak edo organo eskudunak ziurtatua.

Zenbakia	Izen-deiturak	Jaiotza-data
1		

B) Ikastetxean aurrematrikulatuta dauden eta 2013ko urtarrilaren 8an eskolatu egongo diren 1-2 urteko haurren alfabeto-zerrenda, udaleko idazkariak edo organo eskudunak ziurtatua.

Zenbakia	Izen-deiturak	Jaiotza-data
1		

\_\_\_\_\_ (e)n \_\_\_\_\_ (e)an

(Ordezkariaren sinadura)



## IV. ERANSKINA

**2010EAN JAIIOAK**

A) 2012ko irailaren 15ean ikastetxean eskolatu dauden 2-3 urteko haurren alfabeto-zerrenda, udaleko idazkariak edo organo eskudinak ziurtatua.

Zenbakia	Izen-deiturak	Jaiotza-data
1		

B) Ikastetxean aurrematrikulatuta dauden eta 2013ko urtarrilaren 8an eskolatu egongo diren 2-3 urteko haurren alfabeto-zerrenda, udaleko idazkariak edo organo eskudinak zirutatua.

Zenbakia	Izen-deiturak	Jaiotza-data
1		

\_\_\_\_\_ (e)n \_\_\_\_\_ (e)an

(Ordezkariaren sinadura)

2012ko irailaren 14a, ostirala

## V. ERANSKINA

**2012-2013 IKASTURTERAKO ESKATUTAKO EDO JASOTAKO  
LAGUNTZEN ZERRENDA**

Eskaera-eguna	Erakundea	Egoera			Emandako zenbatekoa
		Emanda	Ukatua	Tramitean	
				<b>Guztira</b>	

\_\_\_\_\_ (e)n \_\_\_\_\_ (e)an

(Ordez kariaren sinadura)

2012ko irailaren 14a, ostirala

## VI. ERANSKINA

## 2012-2013 IKASTURTERAKO AURREKONTUA

**SARRERAK**

Kontzeptua	Entitatea	Zenbatekoa
2012-2013 ikasturterako jada emanda dauden diru-laguntzen ondoriozko sarrerak		
Familiak jarritako kuoten ondoriozko sarrerak		
Beste kontzeptu batzuk		
<b>Guztiko sarrerak</b>		

**GASTUAK**

Kontzeptua	Zenbatekoa
Pertsonal-gastuak	
Funtzionamendu-gastuak	
Haur Hezkuntzako ikastetxea eguneratzeko eta mantentzeko gastuak	
Beste gastu batzuk	
<b>Guztiko gastuak</b>	

**DEFIZITA**

Guztiko sarrerak	
Guztiko gastuak	
<b>Defizita</b>	

\_\_\_\_\_ (e)n \_\_\_\_\_ (e)an

(Ordez kariaren sinadura)

2012ko irailaren 14a, ostirala

## VII. ERANSKINA

## HEZKUNTZA-LANGILEEN ZERRENDA

Izena	Titulazioa	Lan-egoera	Euskara-titulazioa

\_\_\_\_\_ (e)n \_\_\_\_\_ (e)an

(Ordez kariaren sinadura)

2012ko irailaren 14a, ostirala

## VIII. ERANSKINA

## HITZARMEN-EREDUA

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILAREN ETA «UDALA» UDALAREN ARTEKO HITZARMENA, ZERO ETA HIRU URTE ARTEKO UDAL-TITULARTASUNEN HUR-ESKOLAK FINKATZEKO.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko .....ren ..an

## BILDUTA

Batetik, Isabel Celaá Dieguez anderea, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua.

Bestetik, «Izena» jauna/andrea, «UDALA»ko alkatea.

## ADIERAZTEN DUTE

**Lehenik.-** Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren 2012ko .....ren ..ko Aginduaren bidez ..... ..KO EHAA), dei egin zitzaion Euskal Autonomia Erkidegoko udalei zero eta hiru urte arteko haurrentzako udal-titulartasuneko haur-eskoletan gaur egungo eskaintza finkatzeko laguntzetarako eskaerak aurkez zitzaion.

**Bigarren.-** «UDALA» Udalak, Haur Hezkuntzaren arloan egiten duen lanaren barruan, laguntzak jasotzeko eskaera aurkeztu du, aipatutako Aginduari jarraituz.

**Hirugarren.-** Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Agindu honetan xedatutakoari jarraituz eta 9. artikuluan xedatzen den batzordeak proposatuta, hitzarmen hau sinatzen duen «UDALA» Udalak aurkeztutako eskaera onartu du. Hona hemen Hitzarmen horren

## KLAUSULAK

**Lehena.-** Lege-esparrua

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren .....aren ..ko Aginduan oinarrituta dago Hitzarmen hau. Agindu horren bitartez, dei egin zitzaion Euskal Autonomia Erkidegoko udalei 0 eta 3 urte arteko haurrentzako udal-titulartasuneko haur-eskolak mantentzeko laguntzetarako eskaerak aurkez zitzaion.

**Bigarren.-** Helburua.

Hitzarmen honen helburua Hitzarmen hau sinatzen duen Udalaren titulartasuneko haur-eskolaren kalitatea mantentzen eta areagotzen laguntzea izango da, betiere 2012ko irailaren 1etik 2013ko uztailaren 30era arte.

**Hirugarrena.-** Egin beharreko hezkuntza eta laguntzako ekintzak.

Burutu beharreko ekintzak horiek, hain zuzen, Udalak haur-eskolarako landu eta mantendu beharko duen hezkuntza- eta laguntza-proiektuan zehaztuko dira; proiektu hori, bestalde, Hitzarmenaren jarraipen-batzordearen esku egongo da.

**Laugarrena.-** Hartzaileak.

Hitzarmen honen hartzaile zuzena Hitzarmen hau sinatzen duen Udalaren titulartasuneko haur-eskola da eta, azken finean, haur-eskola horretan seme-alabak dituzten familiak.

**Bosgarrena.-** Batzuen eta besteen ekarpenak.

Helburuak lortzeko eta proiektuetako ekintzak gauzatzeko, Hitzarmena sinatzen duten alde biak ados daude honako ekarpen eta konpromiso hauek betetzeko:

## A) Udal sinatzaileak:

## A 1 - Ekarpenak

- Azaroaren 16ko 215/2004 Dekretuak, 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezarri dituenak, zehaztu dituen jende- eta gauza-baliabideak.
- Haur-eskolaren kontrola, antolakuntza, administrazio-lanak, garbiketa, mantentze-lanak eta beste zerbitzu batzuk egiteko eta bermatzeko behar beste langile egoki.
- Une oro hezkuntza-proiektua bermatzeko behar beste baliabide ekonomiko izatea. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eman ditzakeen diru.laguntzen bitartez lor daitezkeen baliabide ekonomikoez gain.

## A 2 - Konpromisoak

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saitetik jasotako diru-laguntza udal-titulartasuneko haur-eskola mantentzeko erabiltzea.
- Diru-laguntza jaso duen proiektuaren garapenari buruzko informazioa helaraztea Jarraipen Batzordeari.

## B) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak:

## Ekarpen ekonomikoak

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Udal sinatzaileari «euro» euro diru-laguntza emango dio .....aren ..ko Ebazpenaren bidez (201.ko .....aren ..ko EHAA). Diru-laguntza horren bitartez udal sinatzailearen titulartasuneko haur-eskolan 0 et 3 urte arteko plazen kostua finantzatzeko laguntza bideratuko da 2012-2013 ikasturtean.

Horretarako eratuko den Jarraipen Batzordeak ikuskatuko du laguntzaren erabilera.

**Seigarrena.-** Diru-laguntza ordaintzeko epeak.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak aurreko klausulan aipatutako diru-laguntza honako epe hauen barnean ordainduko du:

- 1.- «euros1» euro, Hezkuntza Sailburuordearen Ebazpena Euskal Herriko Aldizkarian argitaratu ondoren, Hitzarmen honetako lehen klausulan aipatzen den .....aren ..ko Aginduaren arabera.
- 2.- «euros2» euro, apirilean.
- 3.- «euros3» euro, gastuen egiaztagiriak aurkeztu ondoren, aipatutako .....aren ..ko Aginduko 13. artikuluan azaltzen den moduan.

**Zazpigarrena.-** Azken kitapena.

Udal sinatzaileak diru-laguntza eskatu eta eman zen helburuetarako erabiltzen ez badu, diru-laguntzaren bidez egin beharreko jarduera betetzen ez badu, hasierako helburuak lortzeko erabili izana egiaztatzen ez badu, edo orokorrean, .....aren ..ko Aginduan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren antolaraueti buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretu 53. artikuluan edo Hitzarmen honetan zehaztutako eginbeharrak betetzen ez baditu, jasotako diru guztia itzuli egin beharko du dagozkion lege-interesekin batera. Interesak abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan erabakitako prozeduraren arabera zehaztuko dira.

2012ko irailaren 14a, ostirala

Diru-kopuru horiek diru-sarrera publikotzat hartuko dira lege-ondorio guztietarako.

**Zortzigarrena.-** Hitzarmenaren indarraldia.

Hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean eta 2013ko uztailaren 30era arte egongo da indarrean.

**Bederatzigarrena-** Hitzarmen honek administrazio-izaera du, eta kontuan hartuko da Hitzarmena betetzeko orduan gerta daitezkeen arazoak ebazteko.

Interesdunak ados daude eta honelako bi kopia sinatu dituzte, goiburukoan zehaztutako tokian eta egunean.

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA «UDALA» ALKATEAK,  
IKERKETA SAILBURUAK,

Izpta.: María Isabel Celaá Dieguez

Izpta.: «Izena»